

## **IKERTZAILE DOKTOREAK UPV/EHU<sub>n</sub> KONTRATATZEKO DEIALDIA (2024)**

### ***Emandako eta ukatutako eskaeren behin-betiko ebazpena***

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratu zuen:

#### **IKERTZAILE DOKTOREAK UPV/EHU<sub>n</sub> KONTRATATZEKO DEIALDIA (2024)**

2025eko otsailaren 3an argitaratu zen Ikerketaren Arloko Errektoreordetzaren web-atarian emandako eta ukatutako eskaeren behin-behineko ebazpena.

Alegazio eta ukoak aurkezteko epean bukatu, IGBBak Ikerketaren arloko errektoreordetzak helarazitako alegazioak aztertu ditu. Hortaz, behin betiko ebazpen proposamena helarazi dio Ikerketaren arloko Errektoreordeari.

Ondorioz, Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak ERABAKI du emandako eta ukatutako eskabideen behin-betiko ebazpena bere web atarian argitaratzea. Behin-betiko onartutako eta ukatutako eskaerak I. eranskinean daude jasota, lortutako azken puntuazioaren arabera ordenatuta, eta argitalpen horrek interesdunei jakinarazteko balioko du.

**ESKABIDEAK BEHIN-BETIKO ONARTU ZAIZKIEN** pertsonak, behin betiko ebazpen hau argitaratu eta hamar lanegunetara, kontratua lortzeko alegatu dituzten baldintza eta merezimenduen egiazkotasuna agertzeaz gain, deialdiaren 13.1 oinarrian adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko dute IAEn.

Eskatutako agiriak epe barruan eta formaz aurkezten ez badira, kontratuaren formalizatzeari uko egiten zaiola ulertuko da.

Behin betiko ebazpenak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere aldi berean erabilia:

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarri gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen argitaratu eta biharamunetik hasita (administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).



Errekurtsoak aurkezteko lekua eta modua deialdiaren 10.1. oinarrian adierazitako lekuetan aurkeztu beharko dira.

Leioan, sinadura elektronikoaren egunean.

Juan Ignacio Umerez Urrezola  
UPV/EHUko Ikerketaren Errektoreordea